

ZIRRIBORROA

2025EKO EKAINAREN 26KO OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hogeita seian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2025eko maiatzaren 8an eta maiatzaren 29an egindako ohiko bilkurako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 5 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du abstenitu egingo direla, aurrekontuan gertatzen ari den etengabeko gorakada dela eta. Batez ere jolas parkea estaltzearen partidaren igoera dela eta.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), 6 abstentziaz (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 5 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	4.434,04 €
IV	Transferentzia arruntak	964,00 €
V	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	100.000,00
VI	Inbertsio errealak	128.500,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		233.898,04 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	233.898,04 €
GUZTIRA		233.898,04 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IV.- ARKITEKTO LANPOSTUARI AMANKOMUNEAN EUSTEKO LAZKAOKO ETA OLABERRIKO UDALERRIETAKO HIRIGINTZA-ZERBITZUEN ELKARTEAREN JARRAIPEN-BATZORDEKO KIDE IZATEKO ZINEGOTZIA IZENDATZEA.-

2025eko maiatzaren 29an Osoko Bilkura honek, Lazkaoko eta Olaberriko udalen artean Hirigintza Zerbitzuen Elkartearen eratzeko lankidetzaren hitzarmena onartu zuen, udal-arkitektoaren lanpostua batera mantentzeko, bi udalerrietan prestazio teknikoa optimizatzen helburuarekin.

Hitzarmenak Jarraipen Batzorde bat sortzea ezartzen du. Batzorde hori Lazkaoko eta Olaberriko alkateek eta udal bakoitzak izendatutako zinegotzi batek osatuko dute, eta taldearen funtzionamendua gainbegiratzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da.

Batzorde honetan Lazkaoko Udalaren ordezkariak egokia eta eraginkorra bermatzeko, Alkateak Ogasuna, Pertsonala, Kontratazioa eta Kontu Berezien batzordeburua proposatu du udal-ordezkari izendatzeko, elkarteari lotutako gai tekniko eta ekonomikoen jarraipena egiteko behar den esperientzia eta ezagutza duena.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio abstenitu egingo direla, EAJ-k aldebakarrez hartu duelako Ogasuna, Pertsonala, Kontratazioa eta Kontu Berezien batzordeburua proposatzeko erabakia.

Hau honela izanik, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), 6 abstentzioz (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordioa hartu du:

Lehena.- Ogasuna, Pertsonala, Kontratazioa eta Kontu Berezien batzordeburua, Lazkaoko Udalaren ordezkari titular izendatzea Lazkaoko eta Olaberriko Hirigintza Zerbitzuen Elkartearen Jarraipen Batzordean.

V.- GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio etzi, ekainaren 28a, LGTBI+ harrotasun eguna izango dela eta proposamen bat dakartela. Horrelako gaiak ateratzen direnean, dagoen batzordean tratatzea, kasu honetan Berdintasun batzordean, eta bera izatea sinatzen duena.

Alkateak erantzun du Udalaren aldetik kartel bat aterako dutela Alkateak, Udalaren izenean. Bestetan Eudelek proposatu du adierazpen eredu, baina aurten oraindik ez dutela ezer jaso.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.